

Datak

2006ko azaroaren 29a: ama zena-
ren izena eta bi abizenak Googlen
bilatzeko bulkada sentitu dut eta,
zer aurkitu nahi nuen ez nekien arren,
harri eta lur gelditu naiz ikusi duda-
nean ez duela emaitza bat ere. Ama hil
da arrasto digitalik utzi gabe.

2012ko otsailaren 5a: egunkarian
eskela bat irakurri dut *Doña Predestina-
ción* izeneko andre batena, Tafallakoa,
Burlatako tanatorioan dagoena. Txistea
egina etorriko zen, grazia balu.

2011ko otsailaren 6a: *Noticias* egun-
kariko “*Sabía usted que...?*” atal kux-
kuxeroan gaur atera da aste honetan
Iruñeko ile apaindegi berean kasualita-
tez bat egin dutela Yolanda Barcinak eta
Maiorga Ramirezek. Antzezlan baten
hasiera ona. Biak publikoari begira ese-
rita, intimitate eta ahulezia momentu
horretan, zerukoaz eta lurrekoaz min-
tzo, tartean estilista (topikoa betetzeko
maritxu) bat sartuta.

2009ko apirilaren 13a: Ibon, Uxue eta
hirurok Almudenako hilerrira joan gara
gaur. Leku ikaragarri zabala da, bertatik
Madril ia osoa ikus daiteke. Ekarri izan
ez baninduten, ez zitzaidan inoiz honai-
no etortzea bururatuko. Zaindari batek
abisatu digu hamar minutu barru itxiko
zutela, baina irteera non zegoen zehaz-
tu gabe. Kostatu zaigu aurkitzea. Hasia
naiz pentsatzen bertan itxita geldituko
ginela, joatean hilerrirako bidea eraku-
tsi digun agure batek esandakoa (“*está
por ahí, pero que no os coja el trompete-
ro*”) beteko zela sinetsita. Krematorioa-
ren atetik atera gara azkenik, irekita
zegoen, agian errausketa bat zegoelako,
beharbada Corín Tellado idazlearena,
pentsatu dugu, edo ondorioztatu. Neure
buruari onartu diot Corín Telladoren
hiletan egon naizela etorkizunean esa-
teko eskubidea.



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

2008ko urriaren 15a: ekoiztetxeko
bat etorri da denok kontratuaren klau-
sula osagarri bat sina dezagun, isilpe-
kotasun klausula bat: hamar urtez ezin
dugu errodajeko ezer inon kontatu,
aipatu ez ezer. Sinatzea beste erreme-
diorik ez dudanez izan, kronikatxo hau
egiteari utzi beharko diot.

(Oharra: pelukeriako neskak, *raccord*
kontuez ari zela, kontatu digu, Penélope
Cruzek, *raccord*-argazkiak teknikariei
pasatu baino lehen, photo-shopa egina-
razten diela, badaezpada norbaitek fil-
tratuko balitu, eta, beraz, makillajekoak
sutan egoten direla, ez baitzeukaten es-
zenaren jarraipenerako heldulekurik).

2012ko irailaren 12a: Martzial berrira-
kurtzen ari naiz. Orain arte topatu gabe-
ko bertuteak aurkitu dizkiot. Begiratu
poema honi. Haiku japoniar fin eta pe-
plum erromatar baten parodia topikoz
jositako baten arteko nahasketa dirudi:

*Horazio, bera bakarrik, kapa beltza
jantzirik, zirkoko jokoak ikusten ari da,
plebea, senatariak eta zaldunak
zuriz jantzita dauden bitartean,
enperadorearekin bat, bakoitza bere
tokian. Bat-batean elurra hasi da:
Horazio kapa txuriaz ari da
jokoak ikusten.*

2011ko urtarrilaren 13a: arrebak
deitu dit genetistarekin egon dela kon-
tatzeko. Gure familiarren hemofiliak zer
gene duen kalteturik zehazteko, ni naiz
“familia” bakarra. Medikua ez omen
du aurpegi onik jarri. Zenbat eta ahaide
gehiagori egin, hainbat hobe eta zeha-
tzago estudioa. Dena den, medikuak
txostenean begiratu du eta, emaitzak
guri bidali ez arren, ikerketa mediku bat
egin ziguten orain hamazazpi urte eta
Bartzelonan ba omen dute nire DNA eta
amarena gorderik, auskalo zer labora-
tegitan, auskalo zertarako. Saiatuko da
eskatzen eta horrekin moldatzen. ■